

*Tene Mujika*

Ez naiz ikaste nagusiak egindako emakumea. Senide asko giñan, eta gurasiak gu aurrera ateratzen lanik asko izan zuten. Gozoki, edari, ta janari denda zuten, eta errian bertan al bestean ikasiak giñan. Mutillai, mutil bezela, neskak neska bezela, ezi ta ikasiak giñan.

Gure gurasoak, eurak bezela debarra zan apaiz jaun bat zuten adiskide on eta aundi: Don Lorenzo Boneta. Eurak baiño zarragoa. Apaiz agurgarria, ta euskaltzale izugarria zan. Oso etxeke gendun.

Don Lorenzo, karlista gudan aurre-zamarrian nabarmendua; eta berak esaten zuanez euskalerrriaren alde egiten zutelakoan, buruz beerako galanta artuta, galduan gelditu.

Ez ordea erri maitasunean makaldu; ta euskerearen alde agelindu. Euskal nortasun alde, euskerearen alde.

Zartzara ikusmena galduz zijoan (ni orain bezela) ta ezin irakurri. Ordurako nik ikastea utzita gurasoei dendan laguntzen nien, ta don Lorenzo dendara etortzen zan egunero berak irakurri ezin zuana neri irakurri araztera. Ni pozik. Irakurtzea zan ba nere zaletasun bizia ta don Lorentzori irakurtzen nizekionak atsegin. Euskeraz idazten zuten guzia ta euskerearen alde erderaz idazten zan guzia zan Irakurgai, jaun arentzat. Esan bearrik ez, biziro zaletu nintzala euskeraren alde zan guzira. Baita gai orretan zerbait askoren jakitun egin ere.

Il zanean larogeta bosto urte zitun don Lorentzok. Ordurako zertxobatzuk idazten asita nitzan bildurti... kezkatu... Evaristo Bustintza "Kirikiño" aundiagana jo nuen. Beso zabalik artu nindun bere saillean... ez det aitzutzen zenbat irakatsi zidan, zela goratu nindun, ordaindu eziñeko zorretan gelditu nintzaion betiko joan zanean... "Jaungoikozale"ko apaizek ere ondo artu ninduen...

Don Abrosio Zatarain, izen ontako euskaltzaiñaren aitak, don Bitor Garitaonandia ta Andres Arzeluz (Luzear) lagun zitula "ARGIA" asteroko errikoi ospatsua ere asko idatzia nuan, eta irakurle asko nitun. Zarrak, gazteak, prailleak, apaiza, jesuitak, (mojak ez)... Jesuiten artean Aita Joakin Aspiazu "sociólogo" ospatsua ere maixu aundi, ezin aitzua izan nuan, gizarteko onbidean euskeldun zintzo jarrai nezan.

Antzerkigiñañ, eta antzezleri taldeekin ematen baita, beti euskera aldez, era askotara lanegiña naiz... pozean giñala... anai arteko guda...

Urteak eta urteak joan dira... nere biotzean beti bat, esan bearrik ez: Euskera maite. Biziko da euskera?... bizido da?... biziko da, auskal-sendia bizi bada. Ta euskal-sendia biziko da emakumeak nai badu. Eta emakumeak nai du... nola ba nai ori azaldu ez, ekin baten elkartuta? Zeri begira emakume gaztea?

Amaitzeko: Euskera aldezko nere biziko lanak poz handia eman izan dizkidate; Poz oien ondoren edo ondore, samiñ zitalak ere bai. Euskaltzaindiak gaur egin digun omen au, gazteak zarrari egiten dion destaina gogoan degula, oi ez dan gauza da, gertatzen ez dana, eta au erderaz esaten duten bezela orain: "Porque la familia está en crisis". Euskaltzaindiak gurekin gaur egun, egin duanak, asko esan nai du, eritzi orren aurka, ta euskalerrria goratzen du, gure artean oraindik ere, sendiko giro ederrak irauten duan agiria da, gaurko au; gurekin egin dezuten maitasun agiri au. Zuek zerate geroko zarrak, eta onen sari, gu gaur bezin zoriontsu izan zaitezteela, gure adiñera eltzen zeratenean. Auxe eskatzen diot gaur Jaungoikoari.